



1. HE-04-03-27

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA -EGUNA _____

AZTERKETA -TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta egin ezazu bertan jartzen duena.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.

1. IRAKURMENA

- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GEZURRA
- **Nola egin:**
 - Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - Egin behar duzun ariketa **erantzun-orrian** daukazu. Bertan datozen esaldiak **egia (A) gezurra (B)** den markatu behar duzu.
 - Ondoren, erantzun-orrian markatu behar dituzu aukeratu dituzunak, A edo B. Beraz, C eta D okerrak izango dira.

HOMEOPATIA

Homeopatiak medikuntza tradizionalaren kontrako printzipioak erabiltzen ditu. Medikuntza tradizionalan, gaixotasunaren aurkako sendagaia ematen zaio gaixoari; alegia, pertsona batek sukarra badu, sukarraren kontrako **sendagaia** ematen zaio. Homeopatian alderantziz egiten da: gaixotasunaren antzeko sendagaia ematen zaio gaixoari: "Homeopatian sukarra sendatzeko erabiltzen diren sendagaiak pertsona sano bati emanaz gero, sukarra izango luke", esan du Javier Perez homeopatak.

Hori kontuan hartuta, homeopatiako sendagaiak gaixoei eman aurretik, pertsona sanoekin egiten dira probak. "Oso dosi txikiak erabiltzen dira, eta gainera, erabiltzen diren substantziak naturalak dira. Hortaz, ez dago arriskurik", esaten du Perezek.

Azken urte hauetan tantak eta supositorioak ere badauden arren, homeopatian pikor edo bolatxo moduko **pilulak** erabiltzen dira. Horiek egiteko, produktu naturalak erabiltzen dira: "Landareak erabiltzen ditugu, horiek uretan beratzen utzi, eta prozesu kimiko baten ondoren, lortzen ditugu pilulak", azaldu du Perezek.

sendagai-medicamento

pilula-pastilla

Era guztietako jendea joaten da homeopatengana, baita haur jaio berriak ere. "Homeopatia ez da **Gizarte Segurantz**an sartzen; horregatik, jendea bere medikuarengana joaten da. Arazoa konpontzen ez bada, orduan jotzen dute guregana. Beraz, izaten ditugun kasu gehienak konplexuak dira", dio Perezek. Hori dela eta, homeopatia medikuntza tradizionala baino mantsoagoa da, gaixotasun kronikoak polikiago sendatzen baitira.

Homeopatia adin eta era guztietako jendearentzat egokia izan arren, pertsona batzuei besteei baino efektu handiagoa egiten die. "Pertsona batzuk oso **sentikor**ak dira: haurrak, adibidez. Hori dela eta, kontu handia izan behar da, hasierako efektua nahiko handia izan daiteke eta. Hala ere, hori ona da: hasieran zenbat eta efektu handiagoa izan, orduan eta errazago sendatzen baita gaixotasuna", dio Perezek.

Homeopatia oso zabala da eta ia era guztietako gaixotasunak sendatu ditzake: "Gaixo bat apendizitisarekin etortzen bazait, ospitalera bidaliko dut zuzenean, baina, bestela, homeopatia gai da era guztietako gaixotasunak sendatzeko", esan du Perezek.

Aurrera begira, Javier Perez optimista da: "Medikuntza tradizionalak bi edo hiru sendagai erabiltzen ditu gaixotasun bakoitzarekin; guk, berriz, askoz gehiago. Beraz, alde horretatik aurrerratuago gaude". Gainera homeopatiak pertsona bakoitzaren sintomak aztertzen ditu, eta gaixotasun bera duten pertsoneri askotan ez die ematen sendagai bera: "Guretzat gaixo bakoitza desberdina da. Oso inportantea da hori sendatzeko garaian" jakinarazi du Perezek.

Daukaten arazo nagusia da titulurik ez daukatenak ere lan honetan aritzen direla: "Jendeak kontu handia izan behar du, eta homeopata medikua dela ziurtatu", jakinarazi du Perez homeopatak.

Aurrera begira, beraz, kontuan hartzeko medikuntza alternatiboa izango da homeopatia.

Berría egunkaria, 2003-11-13
Egokitua

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** "HOMEOPATIA"
- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GEZURRA

	A (egia)	B (gezurra)
1. Homeopatiak ez du sukarra sendatzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Homeopatian supositorioak erabiltzen dira batez ere	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Sendagaiekin probak egiteko, homeopatiak gaixoak erabiltzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Homeopatarengana joan aurretik, bere medikuarengana jotzen du jendeak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Gaur egun, homeopatiak medikuntza tradizionalak baino lehenago sendatzen du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Homeopatiak ia gaixotasun guztiak sendatu ditzake.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Homeopatia, batez ere, haurrentzat da egokia.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Homeopatiak medikuntza tradizionalak baino sendagai gehiago erabiltzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Nahiz eta sintoma berak izan, askotan sendagai desberdinak ematen dituzte homeopatek.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Perez Homeopataren iritziz, homeopatek mediku-titulua izan behar dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

1.2. ZUZENKETA-ORRIA:

- **Irakurgaia:** "HOMEOPATIA"
- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GEZURRA.
- **Baremazioa:** 7 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

ERANTZUN ZUZENAK

1	G	6	E
2	G	7	G
3	G	8	E
4	E	9	E
5	G	10	E

2. IDAZMENA

- **Ariketa-mota:** INPRIMAKIA BETETZEA
- **Nola egin:**
 - Hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia bete behar duzu.
 - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

GAIA: Aspaldi honetan berandu iristen ari zara lanera. Horren arrazoia da autoa aparkatzen denbora asko galtzen duzula.

Idatzi arduradunari egoera zein den azaltzeko, eta arazo hori konpontzeko eskaera bat egin.

Oharra: idazlana egiteko, hurrengo orrialdeko inprimakia erabili.

